


STEE-EILAS



STEE-EILAS-ek EAEko GIZARTE EKIMENEN IKASTETXEEN HITZARMEN KOLEKTIBOIA BERRESKURATUKO DUEN AKORDIOA SINATU DU

STEE-EILAS sindikatuak Gizarte ekimeneko Ikastetxeetan 2013ko uztailaren 5tik aurrera zabalik izan den gatazka kolektiboari konponbidea emango dion akordioa sinatu du gaur Eibarren goizeko 10etan izandako bileran.

STEE-EILASen aldarri guztiak asebetetzen ez baditu ere, akordio honek gatazka kolektiboa bertan behera geratzeko sindikatuak plazaratu genuen azken plataforman jasotako funtsezko puntuak jasotzen ditu. Besteak beste:

- Berreskuratzen dugu EAEko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeen hitzarmena bere osotasunean data zehatz batean – sinatu eta berehala hitzarmenaren atal guztiak eta 2015ko abenduaren 31a baino lehenago lansariak ere-
- Patronalek Auzitegi Gorenean sartuta daukaten helñegitea kenduko dute
- Saihesten da lan erreformak ezarritako ultraaktibitateari buruzko muga – beste bat sinatu arte hitzarmena indarrean izango da-
- Arazo ekonomiko bereziak dituzten ikastetxeetan derrigorrezko arbitrajea eragozten da eta izateko langileen ordezkarien onespena beharko da.
- Sektoreean enplegua mantentzeko eta ikastetxeetan soberan dauden langileak birkolokatzeko oinarritzko konpromisoa jasotzen da
- Hezkuntza Laguntzako Espezialisten lansariak irakaskuntza publikoko funtzio bera duten langileekiko %95ean parekatuko dira 2015eko abenduaren 31rako..

STEE-EILASek berriro dio langileen borrokak eragin duela Kristau Eskola-k eta IZEA-k sindikatuak eskatutako funtsezko aldarriak onartu izana. Aurreko ikasturtean erakutsitako jarrera tinko, borrokalari eta sektoreko Euskadiko hitzarmena defendatzeko adorea ahalbidetu du Euskadiko hitzarmena berreskuratzea. STEE-EILAS, ELA, CCOO eta UGTren arteko batasun sindikalak erakutsi du hori dela langileen eskubideak defendatzeko biderik egokiena.

Baina hemen ez da amaitzen bidea. Orain akordio honetan aurreikusten duen batzorde parekideakaren zehaztugabe geratu diren zenbait kontuen bilakaerek - enplegua mantentzea, Diocesanako langileen diskriminazioa, ikastetxeen gardentasuna eta partehartzea ,...- erabakiko dute sinatutako akordioa gutxienezkoa edo ona den.

Euskal Herria, 2014ko urriaren 10ean